



Zarauzko Udal Aurrekontuak 2013 Behin-behineko onarpenari erreklamazioak

1. AZALPENA

Otsaileko Ezohiko Osoko Bilkuran aurtengo Udal aurrekontua eman zitzaien, eta EAJ-PNVren Udal taldetik ezezkoa eman genion Udal Gobernuak Udaltzarrerera eramandako proposamenari. Aurrekontuak zein legealdiko lehen bi urteetan gertatutakoa aztertu, eta hainbat herritarrekin eta elkarterekin hitz egin eta iritzia jaso ondoren, honako ardatz nagusitan biltzen dugu gure ezezkoaren arrazoiak:

1.1 Formen garrantzia. Uste dugu aurrekontuak aurrera eramateko prozesua ez dela egokia izan. Iazko aurrekontuetan ere gardentasunean emandako atzerapausoak salatu genituen. Inoiz baino beranduago onartu ziren aurrekontuak, eta arrisku hori saihesteko, joan den abenduan lanerako kronograma aurkezteko eskatu genion Gobernu taldeari, argudio hauetan oinarrituta:

- Gardentasunagatik.
- Eraginkortasuna bilatzeko.
- Oposizioaren parte-hartzea errazteko.
- Funtsean, 2012ko aurrekontuen nahaste-borrastea berriz ez errepikatzeko.

Eskaera hori ez da bete, eta oraingoan ere EAJ-PNVren Udal taldetik oztopoak topatu ditugu aurrekontuen lanketa egokia egiteko. Ekonomia batzordean gastuen lehen zirriborro bat aurkeztu zitzaigun, eta hori da lanerako erabili genuen dokumentua, zailtasunak zailtasun -emandako dokumentazioan ez ziren agertzen 2012ko kopuruak, konparazioa egin ahal izateko-.

Handik hilabete pasatxora, aurretik bidalitakoarekin zerikusirik ez zuen aurrekontu proposamena bidali zigun Udal Gobernuak, Ekonomia batzordeko deialdiarekin batera. Aldaketa aipagarriak zeuden hainbat sailetan, eta orotara milioi euro luze gehiagoko aurrekontua zen. Tarte horretan, Udal Gobernuak ez zigun eman lantzen ari zen aldaketa sakonen berri, nahiz eta idatziz eskatu genuen behin-betiko dokumentua. Behin-betiko proposamen hori, esan bezala, azken orduan eta legeak eskatzen duen antelazioaren mugan bidali zitzaigun.

Ondorioz, gure Udal taldeak aurreko zirriborroarekin egindako lana alferrik izan zen, neurri handi batean, eta ez genuen izan behar adina denborarik azken proposamena aztertzeke. Dena Udal Gobernuaren axolagabekeriaren ondorioz. Beste zenbait kasutan, Kirol Patronatuaren kasuan, esaterako, aurrekontuen dokumentazioa zegoen batzordea baino ordu gutxi batzuk lehenago bidali izan da, gure lana zailduz.

Martxoko ekonomia batzordean helarazi zizkiguten kontuak dira aurrekontuen inguruan jaso dugun azken dokumentazioa, eta gerora jakin dugu dokumentu horrekiko doikuntzak eta aldaketak izan direla, Osoko Bilkuran onartutakoarekiko. Behin-betiko dokumentu hori ez genuen jaso eta ez dugu jaso oraindik. Hori horrela, asteartean kontu-hartzailetzara jo behar izan genuen espedientearekin batera zegoen dokumentazioa eskuratzera.

Azkenik, gogorarazi behar dugu Udal Gobernuak auzoetako bizilagunekin eta bestelako eragileekin -Udaleko langileak, esaterako- antolatutako bileretan ezin izan dugula baldintza duinetan parte hartu, hitza hartzea ukatu baitzaie oposizioko alderdiei. EAJ-PNVren Udal taldeak behin baino gehiagotan salatu du Udal Gobernuaren portaera hori. Uste dugu premiazko lana dela parte-hartzearen inguruan eredu berria eta inklusiboa adostea guztion artean, halakorik errepikatu ez dadin. Ideiak trukatzeko eta elkarbanatzeko beldurra galdu behar da.

Bilerei dagokionez, uste dugu bertan eman den informazioa ez dela nahikoa izan, eta bizilagun eta eragileengandik jasotako ideia askok ez dutela islarik izan Udal Gobernuaren aurrekontu proposamenean. Izan ere, ez da behar beste denborarik hartu jasotako ideia guztiak lantzeko eta horien inguruan hausnartzeko; azken bileraren eta aurrekontuen hasierako onarpenaren artean egun gutxi batzuk baino ez ziren pasa.

Nolanahi ere, ontzat jotzen ditugu Bilduren Udal Gobernuak parte-hartzearen arloan aurrerapausoak ematen jarraitzeko egindako ahaleginak. Aurreko legealdian EAJ-PNVren Udal taldea saiatu zen, ardura izan zuen sailetan, herritarren partaidetza bultzatzeko, kontseilu sozial eta bestelako neurrien bitartez. Kontseilu batzuk martxan ez ditu jarri oraindik Udal Gobernuak. Jakin badakigu alor honetan perfekzioa urruti gelditzen dela ia beti. Denon artean hobetzeko eta herritarrekin elkarlanean aritzeko borondatea izatea da garrantzitsuena, eta eredu desberdinak izan arren, EAJ prest azaltzen da Udal Gobernuarekin batera gai hau lantzeko, zoru komun horretatik abiatuta.

1.2 Zorra: Berriz ere, harritu egin gaitu ikusteak Udal Gobernuak zorpetzearen aldeko apustua egin izana, aurrekontuen 9. kapituluak argi ikusten den moduan. Izan ere, legealdia hasi zenetik Bilduk hamaika bider kritikatu ditu aurreko gobernuak arrazoi beragatik, jakinda zor hori inbertsioetarako eta herriaren mesederako izan dela. Inkoherentzia handia iruditzen zaigu: gauza bat esan kalean, eta bestea egin etxean.

EAJ-PNVren Udal taldearen irudiko, Udal Gobernuak ez du zintzo jokatu. Aurreko Gobernuak utzitako zorra hainbatetan kritikatu eta aitzakia gisa erabili ondoren, azken hilabeteetan publikoki esan du zor hori murrizten ari dela bere kudeaketari esker, zorra amortizatu, hau da, dagozkion kopuruak ordaindu besterik egin ez duenean, aurreko legealdietan egiten zen bezala. Jaso dugun aurrekontu proposamenak, ordea, argi uzten du Bilduk zorrari eusten diola. Zorpetze hori zentzuzkoa den ala ez epaitu gabe, gai honetan behingoz demagogia eta arinkeria alde batera uzteko eskatzen diogu Udal Gobernuari.

1.3 Memoria: Ez gatoz bat aurrekontuekin batera Udal Gobernuak aurkeztutako memoriaren planteamenduarekin. Aurrekontuen nondik-norakoak azaltzeko dokumentu objektiboa izan behar du memoriak. Hala egin izan da aurreko legealdietan. Bilduren Udal Gobernuak, ordea, bere ikuspegi politikoa plazaratzeko eta errealitate politiko eta sozialaren inguruan dituen ideiak aurkezteko baliatzen du memoria. Iazko aurrekontuetan ere akats horretan erori zen. Kutsu panfletarioa dario dokumentuari, eta uste dugu beharrezkoa den arduraz eta zuhurtziaz ez duela jokatu Udalak, beste behin. Batzuetan zaila da jakitea aurrekontuen memoria ala Sorturen ponentzia ari garen irakurtzen.

1.4 Negoziazioak: Argi utzi nahi dugu Udal Gobernuak ez duela gurekin akordioa lortzeko borondate sendo eta benetakorik erakutsi. Garbi gelditu zen azken Osoko Bilkuran, Ogasun zinegotziak esandako hitzetan. EAJ-PNVk beti defenditu du, garai zail hauetan, inoiz baino beharrezkoagoa dela desberdinen arteko akordio zabalak bilatzea, herriaren mesedetan, herriak berak ere ozen asko eskatu duelako hori. Zarauzko kasuan, ordea, Udal Gobernuak ez du EAJ-PNVk legealdi hasieratik luzatutako eskua hartu nahi izan, zinegotzi batzuen salbuespenekin. Ido horretan, mugikortasunaren inguruan lortutako akordioa aldaketarako mugarri izango den itxaropena badugu, Zarauzko bi alderdirik bozkatuenen arteko harremanei dagokionez.

Udal Gobernuak zilegitasun osoa dauka besteekin adostasunak bilatzeko eta aurrekontuak beste alderdi batzuekin aurrera ateratzeko. EAJ-PNVk jarrera hori errespetatu eta bere zilegitasuna aitortzen dio. Baina argi utzi nahi dugu gure alderdia ez dela aintzat hartu aurrekontuen negoziazioan. Izan ere, negoziazioaz hitz egin ahal izateko, lehentasunen inguruan negoziatzeko prestutasuna azaldu beharko luke Udal Gobernuak. Hau da, aurrekontuak lantzen hasi aurretik, irizpide garrantzitsuenez eta ildo nagusiez hitz egiteko borondatea.

2013ko aurrekontuen kasuan, halako borondaterik ez da izan. Bere kabuz landu ditu aurrekontuaren oinarriak Udal Gobernuak, eta EAJ-PNVri egindako bilerarako deiak 'espedita betetzeko' saiakerak izan dira, akordio sakon bat lortzeko saiakerak baino gehiago. Berriori diogu; Bilduk erabakita zeuzkan bere lehentasunak, zilegitasun osoz, zein aurrekontuak aurrera ateratzeko izango zituen bazkideak -Aralar, Ezker Batua eta PSE-.

Guzti hori kontuan hartuta, gure udal taldeak ezezko bozka eman zuen aurrekontuari hasierako onarpena emateko ezohiko Osoko Bilkuran. Publikoki esan dugu, behin baino gehiagotan, EAJ-PNVk erakunde guztiek **AURREKONTUA EDUKITZEA** defenditzen duela, Zarautzen ere bai. Krisi garaiotan arduraz jokatu behar dugu, eta erakundeen lana erraztu. Aurrekontuak ezinbesteko tresna dira egoera honi aurre egiteko eta, gobernuan izan ala ez, hori erraztea da gure alderdiak defenditzen duena.

Zarauzko kasuan, argi asko esan dugu Zarautzek aurrekontuak izatea erraztuko dugula. Dagoeneko Udal Gobernuak bermatuta dauka aurrekontuetarako babesa eta bere proiektua aurrera ateratzea. Baina lehendik ere, akordioetara iristeko gure prestutasuna azaldu genuen, Bilduk Ezker Batuaren babesa ziurtatu ez zuenean.

1.5 Edukia: EAJ-PNVren Udal taldea, oztopoak oztopo, beti ahalegindu da oposiziotik ere ekarpen aberasgarriak egiten eta kritika errazean ez erortzen. Horren lekuko dira 2012ko aurrekontuari aurkeztu genizkion alegazioak (70 baino gehiago). Ildo horretan, eta ondo egindakoa aitortzeko arazorik ez dugun neurrian, positibotzat jotzen dugu Udal Gobernuak, iaz guztiei ezezkoa eman arren, aurtengo aurrekontuetan EAJren zenbait alegazio-proposamen onartu izana, hala nola:

- Musika Eskola bultzatzea eta Villa Mundako instalazioak hobetzea.
- Zinema frontoian ekipamendu eszenikoa atontzeko azterketa egitea.
- Haur parke bat estaltzea.
- Markesinak konpondu eta berriak egitea.
- Astiko argiteria hobetzea.

Idea eta proiektu guzti horiek present zeuden EAJ-PNVren 2011ko hauteskunde programan zein 2012 aurrekontuari aurkeztutako erreklamazioetan. Horrenbestez, asko pozten gaitu Udal Gobernuak ideia horiek bere egin izanak, herriaren mesederako izango direlako. Santa Klarako pasagunean tren saihesteko lurpeko pasabide bat egiteko ideia ere ontzat jotzen dugu, eta baita Bilduk epe motzean bada ere atez atekoa inposatzeko erabakia alde batera utzi izana.

Nolanahi ere, Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuak ez dira EAJ-PNVrenak: formak ez direlako bete, iluntasuna delako nagusi, gure Udal taldearen iritzia aintzat hartu ez delako, eta edukiari dagokionez ere, zenbait gauzatan ados egon arren, hobetu eta aldatu beharreko hainbat gauza ikusten ditugulako -batzuk aipatu ditugu dagoeneko-. Denbora hartu dugu aurrekontu proposamena aztertu, eta gure ekarpenak egiteko, **dagokion forma eta denboretan.** Iaz egin genuen moduan, erreklamazioak egiteko legeak aurreikusten duen hilabetea aprobetxatu dugu horretarako.

Jakin badakigu krisi garai hauetan Udalak eskumen eta baliabide mugatuak dauzkala hainbat

alorretan, eta zaila dela behar guztiak ase eta fronte guztietara iristea. Horrenbestez, EAJ-PNVk **jarrera eraikitzaile** batekin aurkezten ditu bere erreklamazioak, denak betetzea ezinezkoa dela jakinda. Horien barruan, badaude pisu handia dutenak, eta beste batzuk hainbesteko garrantzia ez dutenak. Espero dugu Udal Gobernuak horietako batzuk aintzat hartzea, aurtengo aurrekontuetan ez bada, hurrengoetan, iazko erreklamazio batzuekin aurten egin duen moduan.

Herriko hainbat bizilagun, elkarte eta eragileren iritzia jaso ondoren, EAJ-PNVk honako erreklamazioak aurkezten ditu, lanerako dokumentu gisa, aurtengo eta datozen urteetako aurrekontuak eta, oro har, Udalaren jardun politikoa aberasteko lagungarria izango delakoan.

2. ERREKLAMAZIOAK

2.1 Aurrekontu sozialagoak xede

EAJ-PNVren Udal taldeak ezinbestekotzat jotzen du aurrekontuek gastu soziala edukitzea lehentasun gisa, eta horrek suposatzen du pertsonen laguntzea, eta erakunde publikoetatik bermatzea inor bazterrean ez gelditzea egungo egoera ekonomikoaren ondorioz. Gastu sozialean sakontzeko ondoko neurri nagusiak proposatzen ditugu:

2.1.1 Justizia sozialerako ezohiko funtsa – gure eskaera nagusia

EAJ-PNVren Udal taldeak beharrezkotzat jotzen du aurrekontuen barruan justizia sozialerako ezohiko funtsa sortzea. Hori dela-eta, 100.000 euroko hasierako diru-atala sortzea proposatzen dugu hainbat arlotan oso ondorio gogorak sortzen ari den egoerari aurre egin ahal izateko. Gizarte Zerbitzuak ezarritako baldintzetan sartu ez, eta behar puntualak dituzten pertsona eta elkarteek jasoko lukete laguntza: semealaben heziketa ordaintzeko arazoak dituztenak, beka eta dirulaguntzen murrizketaren ondorioz ikasi edo formatzeko zailtasunak dituzten gazteak, edota erosteko ahalmena nabarmen galdu duten pentsionistak, esaterako.

Behar nagusiak non dauden eta dirua banatzeko irizpideak zehazteko helburuarekin, elkarte eta erakundeekin arlokako lanerako mahaiak sortzea proposatzen dugu: Eskola Kontseilua, entitate sozialak, hirugarren adinekoak, Caritas edota kirol taldeekin, esaterako. Gobernu taldea ez ezik, mahai horietan oposizioa ere egotea, eskatzen dugu.

2.1.2 Herrigintza oinarri gisa

Elkartegintza babesten eta bultzatzen jarraitzeko unea da, orain arte egin izan den bezala. Herriko kultur, kirol, gizarte eta bestelako elkarteek sekulako lana egiten duten Zarautz eta zarauztarron alde. EAJ-PNVren Udal taldearen ustetan, dugun aktiborik baliotsuena dira. Eta krisi garaian sostengua eman behar zaie. Arlo honetan, hauek dira gure erreklamazioak:

- Krisiaren ondorioz sekulako eskari eta lan zama izaten ari diren elkarteei ohiko dirulaguntzaz gain, ezohiko diru dotazioa bideratu, jendartearentzat funtsezkoa den lan hori baldintzarik egokienetan aurrera eraman ahal izan dezaten: Caritas, Nagusilan...
- Elkarteei dirulaguntza ez jaitsi, eta beharrezkoa den kasuetan igotzea, batzuekin hitzarmen egonkorak sinatuz: ZAE, ZKE, Artezaleak, Schola Cantorum, Zarautz Abesbatza, Haur Kultur Taldea, Txirrindularitza Elkarte Jubilatua...
- Udalean dirulaguntzen tramiterako eta elkarteen kudeaketarako aholkularitza zerbitzua eta laguntza eskainiko dituen zerbitzua martxan jarri, eta behar izanez gero horretarako partida ireki.
- Zarauzko elkarteen erregistro ofiziala sortu.

2.1.3 Zarauzko ekonomia biziberritzeko egitasmoa

Legealdi hasieratik aldarrikatu dugu behar-beharrezkoa dela Udalean gastu korrontea murriztu eta zerbitzuei eutsi ahal izateko egitasmo bat martxan jartzea. Halaber, herrian enpresa txikien, merkataritzaren eta ostalaritzaren jarduera biziberritu eta langabeziari aurre egiteko egitasmoa abiarazi behar dela uste dugu, eta formakuntza eta herrian negozio berriak jartzeko diru-atalak handitu, Udal Elkartearekin elkarlanean:

- UKUEren enplegu planak berreskuratu, edo horiek ordezkatzeko partida bideratu.
- Formazio ekintzak indartu.
- Murkil eta Zurekin babestu.
- Ixitako denden erakusleihoak txukuntzeko egitasmoa abian jarri.
- Negozio berriak irekitzeko partida.

2.2 Hirigintza, Herrilan, Azpiegiturak

2.2.1 Asfaltatzea lanak egiteko partida ireki beharra dagoen tokietan: Asti inguruan, Azken Portu Behean (kanal aldean), Itxasmendin, Araba kalean...

2.2.2 Azken Portu Goian irisgarritasuna hobetzeko proiektua abiatzeko partida espezifiko ireki. Gai hau lehentasunezkoa dela uste dugu.

2.2.3 Zarautzen zerbitzu eta kokapen egokia eskainiko duen beilatoki baterako azterketetarako partida ireki.

2.2.4 Herriko landa eta baserrietako bideak zaindu, egoki seinalizatu eta argiztatzeko egitasmoa gauzatu: Aitze, Urteta...

2.2.5 Herritarren kexak ikusita, herriko saneamendu sistema eta estolderia mantentzeko partida handitu.

2.2.6 Herrian kokapen estrategikoan eguneko agenda eta egitaraua izango duen panela jarri.

2.2.7 21. Agenda barruan, Eratzun berde eta urdinaren proiektua gauzatzeko dirua bideratu.

2.2.8. Alde Zaharreko eta hondartzako oinezkoen eremuetako seinalizazioa hobetu.

2.2.9 Espaloiak konpontzeko partida ireki, batez ere irristatzeko arriskua dakartenak edo putzuak sortzen dituztenak (Aritzbataldeko arkupeak, edota Rosaleda inguruak, esaterako).

2.2.10 Lizardi institutu ondoko pista berdea konpontzeko neurriak hartu.

2.2.11 Vista Alegren eta Azken Portu Goian ur presioarekin duten arazoak konpontzeko neurriak hartu.

2.2.12 Toki estrategikoetan bizikleta aparkalekuak egiteko partida ireki, estaliak ere bai.

2.2.13 Autopista bazterretan babes pantailak jartzeko egitasmoa gauzatu.

2.2.14 Jubilatuen egoitzako kanpoko aldean iluminazioa hobetu.

2.3. Mugikortasuna eta aparkalekuak

2.3.1 Zebra bideak: herrian zenbait istripu izan dira eta segurtasuna bermatzeko neurriak hartu behar dira.

- Gauetan argi nahikoa izatea, bai errepidea gurutzatzen duten zebra bideetan, bai eta espaloietan.
- Zebra bide inguruetan, ez kontenedore eta ez kamio edo furgonetak aparkatu ez ahal izateko neurriak.
- Garbi azaldu bizikletak lehentasuna dutenean.
- Herriko zenbait eremutan zebra bideak igo (Azken Portu Goian, esaterako).

2.3.2 Herriko zenbait eremu peatonalizatu edo espaloiak zabaltzeko azterketa egitea,

2.3.3 Autopista irteeran seinalizazioa hobetu, kamioiak behar bezala bideratu ahal izateko.

2.3.4 Bidegorri sarea osatu eta hobetzeko (argiteria, etabar.) egitasmoa aurrera eramateko plangintza.

2.3.5 Adinekoen Kontseiluak egindako irisgarritasun azterketa kontuan hartu, eta behar izanez gero, gauzatzeko diru partida ireki.

2.3.6 Gurmendiko aparkalekuei irteera emateko tramiteak arindu, alokairu eta erosketa formula berriak eskainiz.

2.3.7 Eguneko Zentroko aparkalekuei irteera emateko tramiteak arindu.

2.3.8 Gaztainpe plazan aparkaleku eta zerbitzu berriak lortze aldera, azterketarako diru partida ireki.

2.3.9 Udaran ohiko legez, Kortazar eta Eguzki-zahar ireki aparkatzeko.

2.3.10 Behar denean N-634 errepidean auzo pilaketak saihesteko udaltzainak bideratu.

2.3.11 Peatonalizazioa:

- Dendarientzat izan ditzakeen ondorioak eta albo efektuak aurreikusteko azterketa egin: zamalanak (ordutegiak), beste lanak, ...
- Bizikleta alokairua sistema ezarri:
 - San Pelaio – Herrira
 - Azkenportu- Aritzatalde -> herrira
 - Vista Alegre – Herrira
 - Itsasmendi – Herrira

2.3.12 Udalak erosten dituen ibilgailuetan energia elektrikoari lehentasuna eman.

2.3.13 Ordenantza fiskaletan auto elektrikoa erosten dutenentzat hobaria handitu.

2.4. Etxebizitza

Zarautzen ez da aspaldian babestutako etxebizitzarik eraiki, eta egoera horri konponbidea eman behar zaio, abian dauden promozioen egutegiak eta aurrekontuak finkatuz, eta prozedurak, tramiteak eta obrak arinduz. Beharrezkotzat jotzen dugu Udal Gobernuak Kortazargo proiektuaren inguruan duen jarrera finkatzea, Aldapetako promozioa azkartzea, eta Salberdin martxan jartzeko ekimena hartzea.

2.4.1 Azken Portu Goian, EParen eraikuntza zaharrear, etxebizitza babestuak eta bestelako ekipamenduak lortze aldera, azterketarako diru partida ireki.

2.5. Kultura, euskara eta gazteria

2.5.1 Musika Eskola bultzatu eta babestu, zerbitzua zein langileen lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena sinatuz.

2.5.2 Musika Eskolaren beharrei egokituz Villa Mundako instalazioak hobetu, iragan urteko erreklamazioetan eskatu genuen bezala. Inbertsioen atalean 30.000 euro gehiago gehitu.

2.5.3 Mollarriko zamalekuan kultur ekimenak antolatzeko partida espezifikoak ireki.

2.5.4 EAJren Udal taldearen ustetan Kortazar eta polikiroldegi ingurua ez dira jarduera eta ekitaldiak antolatzeko gunerik egokienak.

2.5.5 Liburutegi zerbitzua hobetzeko partida ireki, udan malekoian bereziki.

2.5.6 Ikasi eta formatzeko zailtasunak dituzten gazteen dirulaguntza eta beka handitzeko partida ireki. Aisialdian murriztu behar baldin bada, murriztu dadila.

2.5.7 *Erlo* Telebistaren dirulaguntza handitu, beste tokian-tokiko euskal hedabideek dutenarekin parekatuz.

2.5.8 Enpresetako langileei euskara ikasteko erraztasunak eman, eta deskontu bereziak ezarri langabe, ikasle, edota Udalaren zerbitzuak egiten dituzten langileentzat (zaintzaileak, etab.).

2.5.9 Atzerrira lanerako aukera bila joan den gazte kopuruaren inguruko azterketa egin, Udal barruko teknikarien eskutik.

2.6 Kirola

2.6.1 Atletismo pista defintzeko diru partida ireki. Aspaldiko aldarrikapena izateaz gain, behar-beharrezkoa ere bada Zarautzen gisako herri kirol zalean eta erabilera handia izango luke. Egoera ekonomikoa lanak hasteko egokiena ez bada ere, tramiteak eta diseinua aurreratzea beharrezkotzat

jotzen dugu.

2.6.2 Astin aurreko legealdian egindako hobekuntzekin jarraitu eta horiek gauzatzeko (errugbiko aldagelak, 'txapela', etabar.) diru partida ireki.

2.6.3 Federatzea bultzatzeko, federatuei udal kiroldegian deskontua eskaini.

2.6.4 Zenbait talderen lokal beharrak bete.

2.6.5 Kirol egokitua bultzatu. Beharrak aztertu eta eskaintza handitu.

2.6.6 Abendañon, La Salle azpiko lurretan BTT-ziklokroserako zirkuitua aztertzekeo partida ireki.

2.6.7 Polikiroldegiko gimnasioko tresneria konpondu eta berritzekeo partida ireki.

2.6.8 Herriko kirol taldeei zor zaizkien azken urteetako dirulaguntzak banatzeko neurriak hartu.

2.7 Hondakinen kudeaketa

Birziklapena, edukiontziak, sentsibilizazioa eta bestelako pizgarriak uztartuz. EAJ-PNVren Udal taldean, edukiontziak dira hondakinen bilketarako eta birziklapenerako sistemarik egokiena; bide horretan sakondu beharra dagoela deritzogu, sentsibilizazio ekimen, hobari eta bestelako neurrien bitartez. Ideia horiek hondakinen mahaian aurkeztuko baditugu ere, aurrekontuak honako alorrak kontuan hartzea gustatuko litzaiguke:

2.7.1 Bilketa selektiboa formakuntzan oinarritu, eta ez inposaketan. Ondorengo gaien inguruan herritarren heziketa eta ardura bultzatzeko diru partida ireki:

- Kontsumo arduratsua.
- Birziklatzeko bereizi.
- Bosgarren edukiontzia erabilera.

2.7.2 Edukiontzien irisgarritasuna eta praktikotasuna hobetzeko diru partida ireki:

- Plastikoa (zuloa txikia da).
- Adinduengan edo ezintasunak dituztenengan pentsatuz egokitzapenak egin.
- Edukiontzi berdearen eta horren ahoaren tamaina murriztu, erabilera desegokiak saiheste aldera.
- Beste herritako esperientzian oinarrituta, edukiontzietan hobekuntza teknologikoak txertatzeko aukera aztertu.

2.7.3 Hondakin poltsa biodegradagarriak eskuratzeko makina jarri, diruz lagundutako prezioekin.

2.8 Berdintasuna

2.8.1 Alor honetan Udalak bere lidergoari muzin egin diola uste du EAJ-PNVren Udal taldeak. Dena elkarte batzuen esku utzi da eta lidergo instituzionala berreskuratzeko neurriak hartu behar direla deritzogu.

2.8.2 Aurrekontuen 'Genero inpaktua' egin.

2.9 Gardentasuna

2.9.1 Osoko Bilkuren telebista emankizuna.

2.9.2 Batzordeetako aktak Udalaren web orrialdean eskuragai jarri.

2.9.3 Udal taldeen idatziak Udalaren web instituzionalean jarri.

2.9.4 Udalaren web instituzionala txukundu eta bultzatu, eta zuzarautz.info web orrialdeari kutsi partidista kentzeko neurriak hartu. Bozeramaleen batzordean jorratu beharreko gaia dela deritzogu.

2.10 Erreklamazioak departamentuka, Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuan oinarrituta

2.10.1 Alkatetza

- 'Publizitate eta propaganda' diru partida 20.000 eurotan murriztu.
- 'Dietak, lokomozioa eta lekualdaketak' diru partida ez igo eta iazko kopuruan utzi (3.060 euro).
- 'Udalbiltza' diru partida egun dauden bi Udalbiltzen artean neurri berean banatu.
- Presoen familiei ematen zaizkien dirulaguntzak beste era batera formulatu, gardentasunez. 'Familiei transferentziak' esamoldea ez da batere argia.
- Elkarkidetzaren kuotak.

2.10.2 Idazkaritza

- Udaletxean wifi sarea jartzeko 6.000 euroko partida bideratu.
- 'Gastu juridikoa' partida 10.000 eurotan murriztu.
- 'Publizitate' partida 4.000 eurotan murriztu.

2.10.3 Ekonomia

- 'Partehartze prozesua' diru partida argitu, eta aukera izanez gero murriztu.

2.10.4 Herrilan

- Garbiketa berezietarako partida ez murriztu. Halako doikuntza eta beherakadak arazoak sor ditzakete aurrerantzean.
- Inbertsioen kapituluan 'Astiko Zuhaitz parkea' kendu -20.000 euro-.
- Inbertsioen kanpituluan 'Sortaldea inbertsioak' kendu.

2.10.5 Ongizate

- Ez gatoz bat Caritas, DYA, Gurutze Gorria, Santa Ana, Iñurritza eta Jubilatuen dirulaguntzak murriztearekin. Gutxienik iazko kopuruari eusteko ahalegina egiteko eskatzen dugu, eta aldi berean, 2.1.1 puntuan aldarrikatzen dugun moduan, justizia sozialerako ezohiko funtsa sortzea.
- Adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan (ileapaindegia... etab.) igoerarik ez.

2.10.6 Kultura

- 'Hainbat bideo egiteko' partida 6.000 eurotan murriztu.
- 'Argitalpenak' diru partida 6.000 eurotan murriztu.
- 'Euskal Memoria Fundazioa' bitan azaltzen da -8.000 eta 9.000 euro-. Bat kendu.
- 'Muntaiak, buzoneoak, etab.' partida 6.000 eurotan murriztu.
- 'Gabonak' partida 6.000 euro jaitsi.

2.10.7 Hezkuntza

- 'Eudel-Giza eskubideak' partida alkatetzara eraman.

2.10.8 Gazteria

- 'Bekak, ikasketak eta poltsak' partidari 2012ko kopurua mantendu.
- 'Argitalpenak' diru partida 6.000 eurotan murriztu.

2.10.9 Hirigintza-ingurumena

- 'Dibulgazio ekimenak' partida 10.000 eurotan murriztu.

2.10.10 Berdintasuna

- 'Sexu aholkularitza gunea' diru partida 10.000 eurotan jaitsi.

2.10.11 21 Agenda - Partaidetza

- 'Kudeaketa eredu berria' eta 'Ikerketa eta proiektuak' partidak 15.000 eurotan murriztu (bakoitza).
- Zikloturista Elkarteari 2012ko dirulaguntza mantendu.
- Gaindegiarentzat bideratutako diru partida kendu.
- 'Sentsibilizazio planak' partida 5.000 eurotan murriztu.

2.10.12 Turismo

Turismoa herriko aberastasunetako bat da; zaindu egin behar da. Nahi edo ez nahi izan turismoa diru iturri bakarra izatea, besterik ez dagoen bitartean, hau mantendu behar da eta zergatik ez bultzatu. Ez gatoz bat Udal Gobernuak Turismo Bulegoa kudeatzeko hartutako bidearekin: ez da balantze edo azterketa seriorik egin, eta zakarretara bota da herritarren partaidetzan oinarrituta abian jarritako diseinu eta plangintza osoa.

- Plan estrategikoan aurreikusitako ildoan aldeko apustua egiten jarraitu.
- Aisialdiko ekintzak turismoari erakargarri izan daitekeenak bultzatu
- Kirol eta turismoa uztartzen duten ekimenen potentziala aprobetxatu.
- Jaiak eta festak, helburu bikoitzarekin (herritarrak eta kanpotarrak) berriro turismora itzuli. Kontu bereizketarekin ez gatoz bat.

2.10.12 Kirol Patronatua

- 'Hainbat gastu' partida zehaztu.
- 'Protokolo eta ordezkapen gastuak' partida murriztu.

Imanol Lasa Zeberio
EAJ-PNVren Udal taldeko bozeramalea